



Usurbilgo Udala



**TOKIKO GOBERNU BATZARRAK 2014KO MARTXOAREN 11N
GOIZEKO 8:30EAN EGINDAKO OHIKO BILKURAKO AKTA**

BERTARATUAK:

Alkatea: Mertxe Aizpurua Arzallus.

Zinegotziak: Alaitz Aizpurua Labaka eta Jone Urdanpilleta Urdanpilleta.

Idazkaria: Nagore Sarasola Otermin.

Ezinetorria adierazi dute: Jose Maria Rivadeneyra Siciliak eta Josu Portu Alzagak.

1.- AURREKO BILKURAKO AKTAREN ONESPENA: 2014/02/25EKO OHIKO BILKURA.

Batzarkideek, 2014ko otsailaren 25eko bilkurako akta aho batez onartu dute.

2.- URBIL MERKATAL ZENTROKO JABEKIDEEN ORDEZKARITZAN DIHARDUEN EVA MENDILUZE ANDREAK, URBIL MERKATAL ZENTROAN INSTALATU DITUEN 1.500 LITROKO BI BILTEGIEI IREKIERA BAIMENA EMATEA.

Esp. Zenbakia: HZ.05/2013-0296

URBIL MERKATAL ZENTROKO JABEKIDEEN (H20707238) ordezkarietan diharduen EVA MENDILUZE andreak Urbil Merkatal Zentroan instalatu dituen 1.500 litroko bi biltegien irekiera baimena eskatzen du.

AURREKARIAK

Alkatetzak 2013ko abenduaren 16an, 2013/1236 dekretuaren bidez, Urbil Merkatal Zentroko lurpeko gasolioko biltegi zaharra kendu eta 1.500 litroko bi biltegi instalatzeko udal baimena eman zion.

IREKIERA BAIMENA

Orain berriz, obra amaierako ziurtagiria aurkeztearekin batera, EVA MENDILUZE andreak 1.500 litroko bi biltegien irekiera baimena eskatzen du.

Eskaera aztertu eta dagokion ikuskapen bisitaldia egin ostean, udal aparejadoreak, Felix Aizpurua Arzallusek, ondoko txostena eman du:

ESKAERA: Gasoileko instalazioaren irekiera baimena
ESKATZAILEA: Eva Mendiluze
KOKALEKUA: Urbil merkatalgunea (Txikiardi 7)
LURZORU SAILKAPENA: Hiri lurzorua



Usurbilgo Udala



ESP. ZENB.: HZ.07/2013-0296

AURREKARIAK

2013ko ekainaren 25ean, Eva Mendiluzek galdera egiten du, Urbil_ merkatalguneko egungo lurpeko gasolioko depositua ezabatu eta 1.500 litroko bi depositu instalatzeko.

2013ko urriaren 14an, alkateak jakinerazpena helarazten dio dokumentazio osagarria eskatuz.

2013ko abenduaren 16an dekretua helarazten du alkateak, gasolioko depositua jartzea baimenduz eta instalazioak bete behar dituen neurri zuzentzaileak zerrendatuz.

TXOSTENA

Txiki Erdiko Urbil merkatalgunean instalatutako gasolioko deposituaren obrak amaitu ondoren, amaiera ziurtagiria eta behin betiko planoak aurkeztu ditu, Eva Mendiluzek.

Amaiera ziurtagiriak eta planoak, Iban Villanueva Ruiz Industria Ingeniari Teknikoak idatzi ditu eta Elkargo Ofizialaren zigilua daramate.

Lehenengo ikuskapenean Sarrerako atearen alboan, 21A-113B eraginkortasuna duen hauts balioanitzeko su itzalgailua instalatzea eta sarrerako atearen gainean larrialdiko argia instalatzea falta ziren.

1998ko otsailaren 27ko Euskal Herriko ingurugiroa babesteko Lege Orokorreko 59-2 eta 61-2 artikuluen arabera, Udalak eta Osasun sailak ezarritako neurri zuzentzaileak osatu diren egiaztatzeko, ikuskapena burutu da.

Udalak eskatutako neurri zuzentzaileak eta baldintzak osatu dituzenez, proposatzen dut eskatzaileari IREKITZEKO BAIMENA EMATEA.

2014ko otsailaren 20an
Udal aparejadorea
Felix Aizpurua

Eskaria kontutan hartuz eta udal aparejadorearen txostena irakurri ondoren, Tokiko Gobernu Batzarrak honako erabakia hartu du aho batez:

E R A B A K I A

LEHENDABIZI: URBIL MERKATAL ZENTROKO JABEKIDEEN (H20707238) ordezkartzan diharduen EVA MENDILUZE andereak, Urbil Merkatal Zentroan instalatu dituen 1.500 litroko bi biltegiei, IREKIERA baimena ematea.

BIGARRENA: Erabaki honen berri interesatuari eta Kontuhartzaitzari ematea.

3.- 2013KO KIROLETAKO DIRU-LAGUNTZEN 2. ZATIA ORDAINTZEA HAINBAT TALDERI.



Usurbilgo Udala



Ikusirik

2013eko otsailaren 6an, Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean, kirol egitasmoak burutzeko diru-laguntza oinarriak argitaratu ziren, eskaerak aurkezteko hogeit hamar laneguneko epea emanaz. Epe horretan, guztira 15 diru-laguntza eskaera aurkeztu ziren.

Apirilaren 25ean egindako Kirol Batzordean, 2013ko kirol egitasmoak burutzeko diru-laguntzen proposamenaren berri eman zen.

Ondoren, 2013ko apirilaren 30eko bilkuran Diru-laguntzen Batzorde Orokorra, kirol teknikariaren txostena kontutan harturik, ebazpen-proposamena egin zuen eta interesatuei 10 eguneko epea eman zitzaien alegazioak aurkezteko.

Aurreneko zatia eskatu zuten 15 kirol elkarteei %50a eman zitzaien; elkarte guztiek 2014ko urtarrilaren 31arteko epea zuten zuriketarako.

Eskatutako modu egokian aurkeztutako gastuak zurututakoaren arabera,

Eta kontuan harturik

- Azaroaren 17ko 38/2003 Legea, diru-laguntzak arautzen dituenak.
- Diru-laguntzak arautzeko udal ordenantza.(GAO, 2008/07/01).
- 2013an Kirol Arloan egitasmoak garatzeko diru-laguntza oinarriak (GAO, 2013-02-06)

Guzti hau kontutan hartuta, Tokiko Gobernu Batzarrak honako erabakia hartu du aho batez:

ERABAKIA

Lehenengoa: Honako eskatzaileei 2013. urtean kirol arloan egitasmoak burutzeagatik onartu zitzaizen diru-laguntzaren bigarren zatia ordaintzea:

Andatza MT	1.423,31
Baxurde Txiki	611,13
Beterri Sub	71,89
Buruntzazpi Txirrindulari Eskola	129,70
Usurbil Judo Taldea	2.485,88
Makax	660,31
Pagazpe	317,85
Tximeleta	320,09
Usurbil FT	1.426,49
Usurbil KE	3.726,44
Zubieta PT	482,80
Zubieta Lantzen KKE Txirr.	371,94



Usurbilgo Udala



Bigarrena : Honako eskatzaile hauek, 2013. urtean kirol arloan egitasmoak burutzeagatik onartu zitzairen diru-laguntzaren lehenengo zatiaren **itzulketa** egin behar dute:

Arraun T.-Aginagako Atarialde Elk.	-294,29
Puntapax KE	-262,32
Saiatuz	-543,35

Diru itzulketa jakinarazpena jaso eta hamar eguneko epean egin beharko da, Udalaren kontu zenbaki hauetakoren batean:

KUTXABANK: 2095 5069 07 1060024832

Hirugarrena: Gastua aurrekontu-partida honen kargura joango da:

1 43 00 481 452 10 01 Kirol-taldeen ohiko diru-laguntza zuzenak

Laugarrena: Interesatuei akordioaren berri ematea

Bosgarrena: Honen berri kontu-hartzaileari ematea.

Eta eztabaidarako gaiak amaiturik, Alkate andreak batzarraldia bukatutzat eman du, goizeko 8:35ean bilera agiri hau jaso da, batzordekideek izenpetuz eta nik, idazkariak, ziurtatuz.